



Hasi zen Myjok enpresarekin, Maiana Agorrodirekin batera. Hortik, 'Burp' asmatu, eta bideo batekin telebistara jauzi egin zuen. 'Chiloé' bidaiia programa aurkeztu zuen lau urtez, munduan gaindi ibiliz. Bilbon bizi da, baina ez da geldirik egoten.

Jokin Etxeberria

«'Chiloé' egin dudanetik oporrak hemen inguruan pasatzen ditut»

Joanes Etxebarria

Gidoigile, telebistako aurkezle eta komertziala ikasketaz. Jokin Etxeberria (Donibane Lohizune, 1979) bere kontura lan egin izan du, kasketa anitz jantzirik. ETBren lan egin ondoren, J.O.K films ekoiztetxea sortu du, zeinek *Nire Argazkia* dokumentala plaza-ratu duen, Benito Duinatekin batera. **Elkarrizketa hau marrazki batek ilustratzen duenez, egizu zure argazkia, otoi.** Uste dut litzatekeela argazki bat non muga agertzen naizen, *Lapurdi* idatzia den tokian. Baina beharbada Bilbora joaten, zentzu honetan. **Bilbon bizi den lapurra zara. Gustuz soilik ala zure lana ezin zelako ber gisara Lapurdin egin?** Bilbok aukera eman dit nire gogo profesionalak bultzatzeko eta egiteko. Egia da etorri naizela lanarentzat, eta gero gustatu zait hiria; hemen ongi bizi

naiz nire lan arloan. Baditut lagun asko joan direnak Parisera edo beste nonbaitera; ni Bilbora joan naiz, eta aukera gehiago ukan ditut. **Muga anitz zeharkatu dituzu bidaiekin. Non harrapatu zaitu BERRIAK, kanpoan?** Ez, bidaiak amaitu ditut. Orain, Bilbon nago. *Chiloé* [ETBko bidaiia programa] egin nuen lau urtez, eta geroztik muntatu dut nire firma berria, J.O.K Films deitzen dena. Orain ari naiz lan desberdinak egiten, nire ekoizpenak eta komunikazio edota sorkuntza lanak. **Zuk komertzioa ikasi zenuen. Segur baliagarria zaizula mundu horretarako.** Bai, noski. Nik komertzioa eta gero antzerki eskola bat egin nuen hiru urtez, eta bada hamar urte kontzeptu horretan naizela. Hasi nintzenetik lanean, beti mugitu naiz nire enpresarekin. Laguntzen du jarraitzeko gauzak egiten sorkuntza mailan.

Chiloé programak asko mugitzera eraman zaitu: Jamaika, Kroazia, Quebec eta Mar-seillara joan zinen lau hilabeteetan. Hain presaka ibiliz herriak ezagut al daitezke? Bai. Denbora ematen zuen ukaiteko halako argazki orokor bat, jakinez idazten nituela gidoiak. Ez ziren ikusten dokumentaletan, baina egoten ginen bertako jendearekin, gure laguntzaile zirenekin. Segur da herri bat ondo ezagutzeko; ez dut uste bidaiia bakarrekin egiten ahal duzun. **Chiloé-rekin, nonbait, ametsak saltzen zenituen...** *Chiloé* zen saio kultural eta turistiko bat. Egiten genuen saio bat Jamaikan, Kingstonean, eta ez genituen aipatzen bortizkeria eta herriaren arazoak. Saio turistiko bat zen gehiago, eta horretan nire rola zen erakustea ondo pasatzen nuela. Pixka bat fikzionatzen nuen, umorea ematen, jakinez ez genuela egiten inbestigazio saio bat.



IDOIA BERATARBIDE

Korrika ibiltzea telebistak ekartzen duen erritmoa da ala horrelakoa zara zu ere?

Hori uste dut telebistaren erritmoa dela: presaka eta korrika. Gauza asko baditugu egiteko epe laburrean. Hori batzuetan pixka bat problematikoa da, baina tira... Horixe da telebistaren erritmoa. Niri gustatzen zait denbora gehiago hartzea, jendea eta tokiak hobeki ezagutzeko.

Erraten da bidaiatuz hobeki ezagutzen dela norberaren herria ere...

Egia da. Ukan dut sekulako xantza mundua ezagutzeko lau urtez. Hastapenean oporrak pentsatzen nituen urrun joanez... Gogo eman dit Euskal Herria eta hurbil diren gunek hobeki ezagutzeko. *Chiloé* egin dudanetik oporrak eta asteburuak hemen inguruan pasatzen ditut, Baigorri [Lapurdi] adibidez. Bidaiak eginda beste begirada bat dut orain.

Burpsaioan ere agertu zinen. Zertan sentitu duzu zeure burua gusturago?

Uste dut berdinketa badela. Alde batekin, *Chiloé* izan da kristoren aukera mundua ezagutzeko eta ideiak zabal-

Uste dut gauzak kalitatezko egiteko badela telebista publiko baten beharra

tzeko, irekia izateko munduari benetan, etnozentrismoari stop errateko... Bestaldetik, *Burp* erokeria zen gehiago, eta alde hori daukat. Uste dut bietan armonia pertsonal bat lortu nuela. **EITBren zuzendaritza aldatzen ari diren honetan, zer ikuspuntu duzu telebistaren geroaz?**

Euskal Herrian badira profesional asko, ideia askorekin, eta ni arlo honetan naiz. Gu, independenteak, ez gara telebistakoak, telebistarekin lan egiten dugu. Espero dugu aukerak izan direla kalitatea egiteko, euskarazko gauzak, eta eroso izanen garela gure lanean gaiak ondo aipatzeko. Espero dut hori izanen dela joera, egiazki parte hartzeko euskal kulturari. Horretarako, behar dira denbora eta baldintza onak.

Zure tonuan bada etsipen zerbaít...

Anitzetan aipatzen dira aurrekontuak, eta orekan denbora gutxi bada. Uste dut gauzak kalitatezko egiteko badela telebista publiko baten beharra.

Aipaturikoaz gain, gehiago ere egin izan duzu. Jendeak, karrikan, zer aipatzen dizu gehienik?

Hemen, Bilbon, *Chiloé* aipatzen didate anitzetan. Bidaiak. Normala da, euskaraz eta gaztelaniaz egiten bainuen; beraz, audientzia gehiago bazuen.



30310

14965108830610

Igandea
2013ko martxoaren 10a

berria

